

Rafael Altunak doktore tesia irakurri du.

2012/07/16

Oñatin ekainaren 29an, goizeko 12:00etan Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateko Rafael Altuna Doktoregaiak bere doktore-tesia aurkeztu zuen Enpresagintzako Auditorioan. Tesiaren izenburua "Kalitatearen paradigman oinarritutako Mondragon Taldeko Gestio Eredu Korporatiboa: legitimazioa, lehiakortasuna eta eraldaketa instituzionala" da eta tesi zuzendaria: Eguzki Urteaga Olano (EHU).

Epaimahaia horrela osatu zen:

Lehendakaria Angel Gabriel Belzunegui Eraso (Rovira i Virgili Unibertsitatea).

Idazkaria: Luxio Ugarte Elorza (MU).

1 kidea: Jesús Antonio Borja Alvarez (UPV).

2 kidea: Xabier Itçania (European University Institute - Italia).

3 kidea: Josep M^a Cortés Martí (Bartzelonako Unibertsitatea).

Tesi honekin Mondragon Taldeko Gestio Eredu Korporatiboaren inguruan egindako ikerketa jasotzen da. Gestio Eredu Korporatiboa kalitatearen paradigman oinarrituta dago eta 90. hamarkadatik aurrera Taldeko kooperatibetan implementatu izan zen. Ikerketa hau gauzatzekoan, ikuspegi soziologikoa jarraitu da eta teoria neoinstituzionala izan da aukeratutako oinarri teorikoa. Metodologiari dagokionez, alde batetik analisi longitudinala eta bestetik, Fagor Ederlan eta AMPO, kooperatibak aztertzerakoan, "case study" metodologia aplikatu izan da. Analisi longitudinalaren bidez, Arrasateko Esperientzia Kooperatiboa eraikuntza sozial gisa ulertuta, bere sorrera eta eboluzioaren berri izango dugu, alderdi kognitiboak, normatiboak eta reguladoreak kontutan izanik. "Case study" metodologiak berriz, Gestio Eredu Korporatiboa nola egokitu eta inplementatu den antolakuntza zehatzei ezagutzeko aukera emango digu. Egokitze horretan, kooperatiba bakoitzak bere eredu propioa garatu du. Horrela, Fagor Ederlan kooperatibak, lean manufacturing sistema aplikatu du, bere ereduaren ezaugarri nagusia bihurtuz. AMPO kooperatibak berriz, reingenieria eta lidergoaren bidea aukeratu du. Era honetan, kooperatiba biek, helburu sozioekonomikoak hobetu eta eraldaketa organizatiboa eta instituzionalaren bidetik abiatu dira. Biek Mondragon Taldeko kooperatibak izateagatik nabarmendu dira nahiz eta AMPOk 2008.urtean Taldetik atera zen.

